

GOI MAILAKO SEGURTASUN- POLITIKA

© IZENPE 2023

Dokumentu hau Izenpe SAren jabetzakoa da eta bertako edukia konfidentziala da.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.eus
izenpe@izenpe.eus



Bertsioen historikoa:

BERTSIOA	DATA	ALDAKETA
1	2005/10/10	Hasierako bertsioa
2	2006/05/15	Aktiboen segurtasuna txertatu da
3	2009/03/03	Webtrust/EV txertatu da erreferentzia gisa E-Sinergyn lokalizazioa eguneratuta
4	2009/05/22	ISO27001 auditoretzaren ondorengo aldaketak
5	2013/12/11	CABForum arauak sartuta
6	2015/03/15	ISO bertsioa 2013kora aldatuta, eta ETSI TS 102 023 araua gehituta
7	2022/03/04	Izenperen SGSIn aplikatutako arau gisa DBOE sartuta
8	2023/03/28	Berrikuspen orokorra aldaketarik gabe

Onarpen kontrola:

BARTSIOA	PROPOSAMENA	BERRIKUSPENA	ONARPENA
1.0	Segurtasun arduraduna	Segurtasun batzordea	2022/10/13



EDUKIA

1. SARRERA	4
2. GOIKO MAILAKO SEGURTASUN-POLITIKA	4



1. SARRERA

Dokumentu honek goi mailako segurtasun-politika ezartzen du. Izenpenren segurtasun-baldintzak betetzeko aplikatu beharreko printzipioak ezartzen ditu.

2. GOIKO MAILAKO SEGURTADUN POLITIKA

Telekomunikazio-sareen gainean gobernu elektronikoaren erabilera eta garapena sustatzen dituen “Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa, empresa de certificación y servicios, IZENPE S.A” sozietatearen (aurrerantzean IZENPE) zuzendaritza nagusiak konpromisoa hartu du Izenpek eskaintzen dituen zerbitzuetan beharrezko diren osotasun-, konfidentzialtasun-, benetakotasun-, trazabilitate-, erabilgarritasun- eta pribatutasun-bermeak ezartzeko eta betetzeko:

- Enpresaren informazio-aktiboak babestuz, hala nola pertsonak, ziurtagiriak, sistemak, dokumentuak eta abar, bai norberarenak, bai bezeroenak.
- Ziurtapen-erakundearen eragiketan ahalik eta fidagarritasunik handiena bermatuz.

Horretarako, ziurtapen-erakundearen informazioaren eta eragiketen segurtasuna kudeatzeko sistema bat sortu du, honako estandar eta arau tekniko hauetan oinarrituta:

- ISO 27001:2013, segurtasunaren kudeaketa-testuinguru orokor gisa.
- ETSI EN 319 411-2 (Policy requirements for certification authorities issuing qualified certificates) eta
- ETSI EN 319 411-1 (Policy requirements for certification authorities issuing certificates)
- ETSI EN 319 421 (Policy requirements for time-stamping authorities)
- CABForum Baseline Requirements for the issuance and management of publicly-trusted certificates
- CABForum Guidelines for the issuance and management of Extended Validation Certificates
- CABForum Network and Certificate System Security Requirements
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudia, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez (DBEO).



Era berean, Izenperen jarduerari eta dagokion prozeduran deskribatutako orokorreari aplikatu ahal izango zaizkie berariazko lege-betekizunak.

Segurtasun-neurriak definitzeko oinarri gisa, aldian behin arriskuen ebaluazioak egiten dira. Arriskuak ebaluatzeko eta murrizteko irizpidea Izenperen zerbitzuak ziurtatzea izango da, ziurtapen-jarduerari aplikatu beharreko legezko betebeharrak eta indarrean dauden estandar teknikoak betez.

Izenperen Zuzendaritzak eta segurtasun-arduradunak politika horren eta politika horretatik eratorritako jarraibideen aldizkako berrikuspenak egiten dituzte, eta, horretarako, prozedura eta dagokion erantzukizunak zehaztu dira. Horrela, entitatearen asmo eta eskakizunetara etengabe egokitzea lortu nahi da.